La bonificación se aplicará del siguiente modo:

a’) Kuotaren % 10, langileen gehikuntza % 5 izan bada.

a’) Del 10% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 5%.

b’) Kuotaren % 15, langileen gehikuntza % 10 izan bada.

b’) Del 15% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 10%.

c’) Kuotaren % 25, langileen gehikuntza % 20 izan bada.

c’) Del 25% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 20%.

Beste hau jarri behar du:

Debe decir:

c) Dagokion kuotaren % 7, 13 edo 20koa, hurrenez hurren, udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboentzat, baldin eta hobaria aplikatzekoa den zergaldiaren aurre aurreko zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa handitu badute, zergaldi haren aurrekoaren aldean.

c) Del 7, 13 o 20 por 100 respectivamente de la cuota correspondiente, para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal, y que hayan incrementado el promedio de su plantilla de trabajadores con contrato indefinido durante el período impositivo inmediato anterior al de la aplicación de la bonificación, en relación con el período anterior a aquél.

Hobaria modu honetara aplikatuko da:

La bonificación se aplicará del siguiente modo:

a’) Kuotaren % 7, langileen gehikuntza % 5 izan bada.

a’) Del 7% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 5%.

b’) Kuotaren % 13, langileen gehikuntza % 10

b’) Del 13% sobre la cuota, cuando el

izan bada.

c') Kuotaren % 20, langileen gehikuntza % 20 izan bada.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

ERABAKIAK:

LEHENA: Onartzea Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren 9. artikulua aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

BIGARRENA: 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

incremento de la plantilla de trabajadores sea del 10%.

c') Del 20% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 20%.

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar la modificación del artículo 9 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas, descrita en la parte expositiva.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO
JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA".

**27. Arau proposamena, IRABAZI DONOSTIA taldeak egina, ekonomia jardueren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzeko.**

"UDALBATZARI

IRABAZI taldearen Arau Proposamena,

**27. Proposición Normativa, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, para la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

Proposición Normativa del Grupo IRABAZI

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Udaleko IRABAZI Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 8an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

"Ekonomia Jardueren gaineko Zergak zenbait hobari aurreikusten ditu udal kuota ordaintzen duten eta langileak kontratu mugagabez kontratatuz enplegua sustatzen duten subjektu pasiboentzat. Azken bi urteetan, zenbait proposamen egin ditugu hobari horiek jaso ahal izateko langileek hurrengo bost urtez lanean jarraitzeko baldintza ezartze aldera. Era berean, lan esklusioko arrisku egoeran dauden pertsonak kontratatzeagatik hobari tarte bakoitza %5ean areagotzea proposatu dugu.

Proposamen horiek ez ziren onartu, aldeko txosten juridikoa jaso bazuten ere; izan ere, foru arauak aitortzen du udalerriek zergari hobariak ezarri ala ez erabakitzeko ahalmena dutela. Iazko txosten teknikoari dagokionez, egiaztapenari buruzko gai tekniko batzuk aipatzen zituen, baina konpontzeko modukoak ziren. Ikus, adibidez, ohiko bizitoki ez diren etxebizitzei aplikatzen zaien OHZren errekargua, eta hura ordaintzetik salbuetsita egoteko egiaztagiriak aurkeztu beharra.

Hortaz, iruditzen zaigu ordenantza aipatutako moduan aldatzeko borondate politikoa behar dela, eta are gehiago kontuan hartuta kontratazioen %90 lanaldi partzialekoak direla, eta, EAEko Gizarte Kontseiluak aurkeztu berri

relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas.

La Portavoz del Grupo IRABAZI presentó con fecha 8 de agosto de 2018 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas:

"El Impuesto de Actividades Económicas, prevé diferentes bonificaciones para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que fomenten el empleo mediante el aumento de su plantilla de personal con contratos indefinidos. Los dos últimos años, hemos hecho una serie de propuesta para vincular esas bonificaciones al mantenimiento del personal indefinido durante los cinco años siguientes. Igualmente, hemos propuesto un incrementar un 5% respectivamente a cada tramo de bonificación para las contrataciones de personas con riesgo de exclusión laboral.

Esas propuestas no fueron aprobadas, si bien contaron con informe jurídico favorable ya que la normativa foral reconoce el carácter potestativo de los municipios para establecer o no bonificaciones al impuesto. Respecto al informe técnico del año pasado, hacía una referencia a cuestiones técnicas de comprobación, que pueden ser resueltas. Sirva como ejemplo la tramitación del recargo del IBI para las viviendas sin residencia habitual y la necesidad de aportar determinados comprobantes para su exención.

Por lo tanto, consideramos una cuestión de voluntad política la modificación de la ordenanza en los términos planteados, más aún si tenemos en cuenta que más de un 90% de las contrataciones lo son a tiempo parcial, y

duen 2017ko txostenaren arabera, emakumeen soldata arraila eta behin-behinekotasuna EAEko enpleguaren "berezko ezaugarri" bihurtu direla. Horregatik, iruditzen zaigu ezinbestekoa dela zergaren hobariak enpleguaren egonkortasunarekin eta hobekuntzarekin lotuta egotea, jakin badakigulako kontratu mugagabeak areagotzeak ez dakarrela, derrigor, langile kopuru garbia haztea.

Halaber, hobariei buruzko 9. artikuluaren 2. puntuaren b) idatz zatia kentzea proposatzen dugu, zerga arautzen duen Foru Arauan ez dagoelako jasota dagoeneko.

Horregatik guztiagatik, honako ERABAKI hauek onestea proposatzen diogu Donostiako Udalbatzari:

LEHENENGOA:
Hobariei buruzko 9. artikuluaren 2. puntuaren b) idatz zatia kentzea, azalpenean azaltzen den eran.

BIGARRENA:
9. artikuluaren 2. puntuko c) idatz zatia aldatzea, azalpenean azaltzen den eran. Honela geldituko litzateke haren idazketa:

c) Dagokion kuotaren %5, 10 edo 20koa, hurrenez hurren, udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboentzat eta baldin hobaria aplikatzekoa den zergaldiaren aurre-aurreko zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa handitu badute, zergaldi haren aurrekoaren aldean. Hobari hauek aplikatzeko, ezinbestekoa izango da langile talde finkoaren handitzeei, gutxienez, bost urtez eustea, handitu direnetik. Hobariak

que según el informe del Consejo Social de Euskadi del 2017 recientemente presentado, la brecha salarial de las mujeres junto con la temporalidad se han convertido en "marca distintiva" del empleo en Euskadi. Por ello, creemos que es imprescindible que las bonificaciones del impuesto estén vinculadas a la estabilidad de y a la mejora del empleo, siendo conscientes de que el incremento de los contratos indefinidos no supone un incremento neto de plantilla.

Proponemos también la eliminación de la letra b) del punto 2 del Artículo 9.- Bonificaciones, puesto que ya no está contemplado en la Norma Foral que sustenta el impuesto.

Por todo ello, proponemos al Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, los siguientes ACUERDOS:

PRIMERO:
Supresión de la letra b) del punto 2 del Artículo 9.- Bonificaciones, de acuerdo con la parte expositiva.

SEGUNDO:
Modificación de la letra c) del apartado 2 del Artículo 9, de acuerdo con la parte expositiva, que quedará redactado de la siguiente manera:

c) Del 5, 10 o 20 por 100 respectivamente de la cuota correspondiente, para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal, y que hayan incrementado el promedio de su plantilla de trabajadores con contrato indefinido durante le período impositivo inmediato anterior al de la aplicación de la bonificación, en relación con el período anterior a aquél. Estas bonificaciones se aplicarán siempre y cuando los incrementos de

%5 gehiagokoak izango dira, tarte bakoitzean, lan mundutik kanpo gelditzeko arriskua duten pertsonak kontratatuz gero. Honela aplikatuko da hobaria:

a') Kuotaren %5ekoa, langile taldea %5ean handitu denean.

b') Kuotaren %10ekoa, langile taldea %10ean handitu denean.

c') Kuotaren %20koa, langile taldea %20ean handitu denean.

HIRUGARRENA:
2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituen erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan (uztailaren 5eko 11/1989) finkatutako prozedurarekin bat. Ulertzen da behin-behineko prozedura hori behin betiko bihurtzen dela erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Ogasun Batzordeak, 2018ko irailaren 11ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

ERABAKIAK:

LEHENA: Onartzea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren 9. artikulua aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

plantilla fija se mantengan durante los cinco años siguientes al mismo. Estas bonificaciones serán de un 5% más en cada uno de los tramos si se emplea a personas con riesgo de exclusión laboral. La bonificación se aplicará del siguiente modo:

a') Del 5% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 5%.

b') Del 10% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 10%.

c') Del 20% sobre la cuota, cuando el incremento de la plantilla de trabajadores sea del 20%.

TERCERO:
Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 1171989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene en definitivo si no se presentan reclamaciones.

En sesión de 11 de septiembre de 2018, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar la modificación del artículo 9 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas, descrita en la parte expositiva.

BIGARRENA: 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO
JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA”.

Eztabaida hasita, Alkate-Udalburuak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Josu Ruiz Martin jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as Alcalde-Presidente, D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Miren Albistur Garmendia, D. Josu Ruiz Martín y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK 9. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 9 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**9. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (5) EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (5) EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**19. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**27. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 27:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

18., 22. eta 29. gaiak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente los asuntos n.º 18, n.º 22 y n.º 29.

**18. Arau proposamena, eraikin, instalazio eta lanen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzeko PP taldeak egina.**

"UDALBATZARI

PP taldearen Arau Proposamena, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Udaleko PP Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 7an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

"Azken urteetan, hainbat tasa orokor proposatu izan dira, eta horiek Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantzaren erankisnean sartzen joan dira. Udaleko Lege Zerbitzuak, ordea, ez du begi onez ikusi hala egitea. Egoera hori konpontzeko, talde popularrak proposatzen du karga tasa bakar bat jartzea lizentzia behar duten eraikuntza, instalazio edo obra guztietarako eta gaur egun eranskinean dauden tasa murriztu guztiak kentzea.

Hori dela eta, ARAU PROPOSAMEN hau egiten dugu ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARAKO (EIOZ):

**18. Proposición normativa, presentada por el grupo PP para la modificación de la ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras (ICIO).**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

Proposición Normativa del Grupo PP relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).

La Portavoz del Grupo PP presentó con fecha 7 de agosto de 2018 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO):

"En los últimos años se han propuesto diferentes tipos de carácter general que se han ido incluyendo al Anexo de la Ordenanza Fiscal Reguladora Del Impuesto Sobre Construcciones, Instalaciones Y Obras (ICIO), cuestión que ha sido motivo de desencuentro con los servicios jurídicos de este Ayuntamiento. Con la intención de poner fin a esta situación el Grupo Popular propone establecer un único de tipo de gravamen para la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la correspondiente licencia, eliminando todos los tipos reducidos existentes en el Anexo a día de hoy.

Por todo ello, se propone la siguiente PROPOSICIÓN NORMATIVA, sobre la ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS (ICIO)

Karga tasa bakarra proposatzen dugu:

| | Karga tasa % |
|---|---|
| Lizentzia behar duten eraikuntza, instalazio eta obrak egitea | % 3,5 |

Ogasun Batzordeak, 2018ko irailaren 11ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

ERABAKIAK:

LEHENA: Onartzea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

BIGARRENA: 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

Se propone un único Tipo de Gravamen:

| | Tipo de gravamen % |
|---|---|
| Realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la correspondiente licencia. | 3,5 % |

En sesión de 11 de septiembre de 2018, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), descrita en la parte expositiva.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO
JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA”.

**22. Arau proposamena, eraikin, instalazio eta lanen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzeko EH BILDU taldeak egina.**

“UDALBATZARI

EH BILDU taldearen Arau Proposamena, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Udaleko EH BILDU Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 7an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

“EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten du ondoko arau proposamena “Eraikin instalazio eta obren gaineko zerga”ren eranskina aldatzeko, jarraian doan puntua gehituz, 4, "obra txikiak" atalean:

4.- Lan txikiak:

- 150 m2 baino eremu handiagoa ez duten lokaletan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta lizentziaren titularrak, negozio kopurua dela-eta, ez badu Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar, eta alta emanda badago beheko epigrafeetan ageri den jardueretako batean (*1).

ZERGAREN ZENBATEKOA: % 2,50

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten du

**22. Proposición Normativa, presentada por el Grupo EH BILDU, para la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Proposición Normativa del Grupo EH BILDU relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).

La Portavoz del Grupo EH BILDU presentó con fecha 7 de agosto de 2018 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO):

“El grupo municipal EH Bildu presenta, para su análisis. la siguiente propuesta normativa para la modificación del anexo del “Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras”, añadiendo el punto que aparece a continuación, en el apartado “4. Obras menores”:

4.-Obras menores:

- Las construcciones, instalaciones y obras realizadas en locales con una superficie no superior a 150 m2, si el titular de la licencia, debido al volumen de negocios, está exento de pagar el Impuesto sobre Actividades Económicas y está dado de alta en alguno de los epígrafes abajo mencionados (*1).

IMPORTE DEL IMPUESTO: % 2,50

El grupo municipal EH Bildu presenta para su

ondoko arau proposamena “Eraikin instalazio eta obren gaineko zerga”ren eranskina aldatzeko, jarraian doan puntua gehituz, 5, "Udalbatzak interes bereziko edo udalaren mesederako obratzat jotako obrak" atalean:

5, "Udalbatzak interes bereziko edo udalaren mesederako obratzat jotako obrak

- 150 m2 baino eremu handiagoa ez duten lokaletan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta lizentziaren titularrak, negozio kopurua dela-eta, ez badu Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu behar, alta emanda badago beheko epigrafeetan ageri den jardueretako batean (*1), eta honako alde hauetan instalatu diren edo lehendik zeuden jardueretan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak badira: Bidebieta, Altza, Intxaurrondo, Egia, Loiola, Martutene eta Amara.

ZERGAREN ZENBATEKOA: % 0,25

(*1) apirilaren 20ko 1/1993 FDAko Eranskineko jarduerak 4d) puntuari atxikiak.
- Multzoak: 64., 65., 66., 67., 69., 93. eta 97.
- 94., 95. eta 96. multzoetan honako taldeak:
942, 943, 944, 945, 951, 961, 962, 963, 965, 966, 967, 968.

Ogasun Batzordeak, 2018ko irailaren 11ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

estudio la siguiente propuesta normativa para la modificación del anexo del “Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras”, añadiendo el punto que aparece a continuación, en el apartado “5. Obras declaradas por el Ayuntamiento Pleno de especial interés y utilidad municipal”:

5.- Obras declaradas por el Ayuntamiento Pleno de especial interés y utilidad municipal:

- Las construcciones, instalaciones y obras realizadas en locales con una superficie no superior a 150 m2, si el titular de la licencia, debido al volumen de negocios, está exento de pagar el Impuesto sobre Actividades Económicas, está dado de alta en alguno de los epígrafes abajo mencionados (*1), y las construcciones, instalaciones y obras se han instalado o las actividades existían previamente en las siguientes zonas: Bidebieta, Altza, Intxaurrondo, Egia, Loiola, Martutene y Amara.

IMPORTE DEL IMPUESTO: 0,25 %

(*1) Las actividades del anexo del DFN 1/1993, de 20 de abril, descritas en el punto 4.d).
- Agrupaciones: 64, 65, 66, 67, 69, 93, 97.
- En las agrupaciones 94, 95 y 96 los siguientes grupos:
942, 943, 944, 945, 951, 961, 962, 963, 965, 966, 967, 968.

En sesión de 11 de septiembre de 2018, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

ERABAKIAK:

LEHENA: Onartzea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantzaren eranskina aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

BIGARRENA: 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), descrita en la parte expositiva.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO
JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA”.

**29. Arau proposamena, eraikin, instalazio eta lanen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzeko IRABAZI DONOSTIA taldeak egina.**

“UDALBATZARI

IRABAZI taldearen Arau Proposamena, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Udaleko IRABAZI Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 8an, ondoko Arau

**29. Proposición Normativa, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, para la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Proposición Normativa del Grupo IRABAZI relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).

La Portavoz del Grupo IRABAZI presentó con fecha 8 de agosto de 2018 la siguiente

Proposamen hau aurkeztu zuen, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

“Aurreko urteetako txosten juridikoekin bat, tasa orokor bakarra egotea gomendatzen baitute, eranskina aldatzea proposatzen dugu berriz, tasa orokorra bakarrik ager dadin bertan obra handietarako eta txikietarako, eta gainerakoak hobarien atalera pasatzea.

Horregatik guztiagatik, honako ERABAKI hauek onestea proposatzen diogu Donostiako Udalbatzari:

LEHENENGOA:

Hobariei buruzko 7. artikuluan jarraian aipatzen diren hobari berriak sartzea onestea, azalpenean azaldu den eran:

Kuota osoaren %50eko hobaria izango dute honako obra handi hauek: oin berriko obrek, lehendik dauden eraikinen egitura edo kanpoko itxura aldatzekoek, xede hauetara bideratuta daudenean:

• Irakaskuntza orokorra: jabetza eta kudeaketa publikoko ikastetxeak, hezkuntza sistemako maila, ziklo eta gradu guztietakoak, haien egitura dena dela ere: haurtzaindegiak, haur hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza, goi mailako hezkuntza, lanbide heziketa, hezkuntza berezia, erdi mailako hezkuntza, unibertsitateko hezkuntza eta legez horien ordezko direnak.
• Osasun arloa, kudeaketa publikokoa

Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO):

“En coherencia con los informes jurídicos de años anteriores que recomiendan que solo haya un tipo general, volvemos a proponemos modificar el Anexo de manera que en el mismo figure unicamente el tipo general para las obras mayores y menores, pasando el resto al apartado de bonificaciones.

Por todo ello, proponemos al Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, los siguientes ACUERDOS

PRIMERO:

Aprobar la incorporación de nuevas bonificaciones, detalladas a continuación, en el Artículo 7.- Bonificaciones, de acuerdo con la parte expositiva:

Gozarán de una bonificación de un 50% de la cuota las Obras Mayores: de Nueva Planta, Modificación de Estructura o Aspecto Exterior de las Edificaciones Existentes, destinadas a:

• Enseñanza general: la enseñanza en centros docentes de titularidad y gestión públicas de los diferentes niveles, ciclos y grados del sistema educativo, sea cual sea su estructura, desde su inicio en guarderías, educación infantil, enseñanza obligatoria, enseñanza superior, formación profesional, educación especial, educación de grado medio, educación universitaria y las que legalmente les sustituyan.
• Sanitario, de gestión pública o sin

edo irabazi asmorik gabekoa: ospitaleak, anbulatorioak, klinikak, kontsultategiak eta antzekoak.

• Laguntza arloa, kudeaketa publikokoa edo irabazi asmorik gabekoa: zaharren egoitzak eta tratamendu eta errehabilitazio zentroak.

• Babes publikoko etxebizitzak.

Kuota osoaren %66,66ko hobaria izango dute honako obra txiki hauek:

• 10 urte baino gutxiagoko bizileku eraikinetako fatxadak berritzeko, garbitzeko eta edertzeko obrek, eta teilatuak eta terraza komunak berritzeko eta aldatzekoek.

• 10 urte baino gutxiagoko bizileku eraikinetan igogailuak jartzekoek.

Kuota osoaren %95eko hobaria izango dute Udalbatzak interes berezikotzat eta udal erabilerakotzat jotako honako obra hauek:

• 10 urtetik gorako bizileku eraikinetako fatxadak berritzeko, garbitzeko eta edertzeko obrek.

• 10 urte baino gehiagoko bizileku eraikinetako teilatuak eta terraza komunak berritzeko eta aldatzeko obrek.

• Igogailurik ez duten etxeetan igogailuak jartzeko obrek; eta arrapalak, plataformak, igogailuak edo atariaren eta igogailuaren artean

ánimo de lucro: en hospitales, ambulatorios, clínicas, dispensarios y similares.

• Asistencial, de gestión pública o sin ánimo de lucro: en residencias de ancianos y en centros de tratamiento y rehabilitación.

• Viviendas de protección pública.

Gozarán de una bonificación de un 66,66% de la cuota las siguientes Obras Menores:

• De rehabilitación, limpieza, y embellecimiento de fachadas, y de rehabilitación y modificación de los tejados y terrazas comunes de los edificios residenciales con una antigüedad de hasta 10 años.

• De instalación de ascensores en edificios residenciales con una antigüedad de hasta 10 años.-

Gozarán de una bonificación de un 95% de la cuota las siguientes obras declaradas por el Ayuntamiento Pleno de especial interés y utilidad municipal:

• Rehabilitación, limpieza y embellecimiento de fachadas en edificios residenciales con una antigüedad superior a 10 años.

• Rehabilitación y modificación de los tejados y terrazas comunes de los edificios residenciales con una antigüedad superior a 10 años.

• Instalación de ascensores en inmuebles que carezcan del mismo, instalación de rampas, plataformas elevadores, elementos y cualquier otra

dagoen aldea igotzeko eta jaisteko balio duen beste edozein elementu jartzekoek edo xede horrekin egindako obrek.

BIGARRENA:
2019ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den eranskina, azalpenean adierazi bezala:

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA (EIOZ)

1.- OBRA HANDIAK: OIN BERRIKO OBRAK, LEHENDIK DAUDEN ERAIKINEN EGITURA EDO KANPOKO ITXURA ALDATZEKOAK, XEDE HAUETARA BIDERATUTA BADAUDE:

| | % |
|---|---|
| Etxebizitzak, negozio lokalak edo jarduera industrialetarako, profesionaletarako, zerbitzuetarako edo antzekoetarako direnak. | 5,00 |

2.- ERAISPENA

| | % |
|---|---|
| Tasa | 2,50 |

3.- OBRA TXIKIAK:

| | % |
|---|---|
| Etxebizitzak eta lokalak | 3,75 |

HIRUGARRENA:
2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izango dituen erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko Foru

obra que sirva para salvar el desnivel existente entre el portal y el ascensor.

SEGUNDO:
Anexo a regir desde el 1 de enero de 2019, de acuerdo con la parte expositiva:

IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS (ICIO)

1- OBRAS MAYORES: DE NUEVA PLANTA, MODIFICACIÓN DE ESTRUCTURA O ASPECTO EXTERIOR DE LAS EDIFICACIONES EXISTENTES, DESTINADAS A:

| | % |
|---|---|
| Viviendas, locales de negocio y al ejercicio de cualquier actividad industrial, profesional, de servicios o cualquier otra similar | 5,00 |

2.- DEMOLICIÓN

| | % |
|---|---|
| Tipo | 2,50 |

3.- OBRAS MENORES:

| | % |
|---|---|
| Viviendas y locales | 3,75 |

TERCERO:
Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la

Arauan (uztailaren 5eko 11/1989) finkatutako prozedurarekin bat. Ulertzen da behin-behineko prozedura hori behin betiko bihurtzen dela erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Norma Foral 1171989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene en definitivo si no se presentan reclamaciones.

Ogasun Batzordeak, 2018ko irailaren 11ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 11 de septiembre de 2018, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ERABAKIAK:

ACUERDOS:

LEHENA: Onartzea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantzaren 7. artikulua eta eranskina aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

PRIMERO: Aprobar la modificación del artículo 7 y del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), descrita en la parte expositiva.

BIGARRENA: 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO
JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA”.

Eztabaida hasita, Alkate-Udalburuak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Josu Ruiz Martin jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as Alcalde-Presidente, D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Miren Albistur Garmendia, D. Josu Ruiz Martín y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**18. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**22. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 22:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**29. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 29:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

21., 25. eta 33. gaiak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente los asuntos n.º 21, n.º 25 y n.º 33.

**21. Arau proposamena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga Ordenantza fiskala aldatzeko PP taldeak egina.**

“UDALBATZARI

PP taldearen Arau Proposamena, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Udaleko PP Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 7an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

“Neurri honen bidez helburua da gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak erosten dituzten pertsonei hobari handiagoa ematea eta hobari hori urte gehiagoz onartzea, baita ibilgailu elektrikoen hobaria %90 handitzea ere.

Hori dela eta, honako ARAU PROPOSAMEN hau proposatzen dugu TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARI buruz:

Hau jartzen duen tokian:

**21. Proposición Normativa, presentada por el Grupo PP, para la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Proposición Normativa del Grupo PP relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

La Portavoz del Grupo PP presentó con fecha 7 de agosto de 2018 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica:

“Con esta medida se trata de incrementar la bonificación y el número de años de reconocimiento de la misma para aquellas personas que adquieran vehículos menos contaminantes, así como incrementar la bonificación a los vehículos eléctricos en un 90%.

Por todo ello, se propone la siguiente PROPOSICIÓN NORMATIVA, sobre la ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

Donde dice:

10. art.- Hobariak

3.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Fabrikatik homologatuta dauden motor elektrikoko ibilgailua edo ibilgailu hibridoa izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

b) Fabrikako homologazioaren arabera, autoko erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituen ibilgailua izatea.

Hobari hori eskatu beharrekoa da eta, behin onartuta, ibilgailua matrikulatzen den dataren ondorengo hiru ekitaldietan izango du eragina.

Honako hau proposatzen da:

10. art.- Hobariak

3.1.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

b) Fabrikako homologazioaren arabera, autoko

Art.10º.- Bonificaciones

3.- Gozarán de una bonificación del 75 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos que cumplan alguna de las condiciones siguientes:

a) Que se trate de vehículos de motor eléctrico o vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diesel o eléctrico-gas), que estén homologados de fábrica, incorporando dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

b) Que se trate de vehículos que, según su homologación de fábrica utilice el gas como combustible e incorporen dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

Esta bonificación tiene carácter rogado y, una vez reconocida, surtirá efectos durante tres ejercicios a partir de la fecha de matriculación del vehículo.

Se propone:

Art.10º.- Bonificaciones

3.1.- Gozarán de una bonificación del 75 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos que cumplan alguna de las condiciones siguientes:

a) Que se trate de vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diesel o eléctrico-gas), que estén homologados de fábrica, incorporando dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

b) Que se trate de vehículos que, según su

erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituen ibilgailua izatea.

3.2. Zerga kuotaren %90eko hobaria izango dute motor elektrikoko ibilgailuek.

Hobari hori eskatu beharrekoa da eta, behin onartuta, ibilgailua matrikulatzen den dataren ondorengo bost ekitaldietan izango du eragina.

Ogasun Batzordeak, 2018ko irailaren 11ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

ERABAKIAK:

LEHENA: Onartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren 10.3 artikulua aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

BIGARRENA: 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

homologación de fábrica utilice el gas como combustible e incorporen dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

3.2. Gozarán de una bonificación del 90 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos de motor eléctrico.

Esta bonificación tiene carácter rogado y, una vez reconocida, surtirá efectos durante cinco ejercicios a partir de la fecha de matriculación del vehículo.

En sesión de 11 de septiembre de 2018, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar la modificación del artículo 10.3 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, descrita en la parte expositiva.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA”.

**25. Arau proposamena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga Ordenantza fiskala aldatzeko, EH BILDU taldeak egina.**

“UDALBATZARI

EH BILDU taldearen Arau Proposamena, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Udaleko EH BILDU Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 7an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

“EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten du ondoko arau proposamena “Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza" aldatzeko, bere 10.artikulua (hobariak).

Ordenantzak horrela dio:

10. art.- Hobariak

3.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Motor elektrikoa edo hibridoa izatea (argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin ibiltzen duena), etxetik bertatik homologatuta datorrena, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze

**25. Proposición Normativa, presentada por el Grupo EH BILDU, para la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Proposición Normativa del Grupo EH BILDU relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

La Portavoz del Grupo EH BILDU presentó con fecha 7 de agosto de 2018 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica:

“El grupo municipal EH Bildu presenta, para su análisis, la siguiente propuesta normativa para la modificación de la “Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica” en su artículo 10º (bonificaciones).

La ordenanza dice así:

Art. 10º. Bonificaciones.

3.- Gozarán de una bonificación del 75 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos que cumplan alguna de las condiciones siguientes:

a) Que se trate de vehículos de motor eléctrico o vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diesel o eléctrico-gas), que estén homologados de fábrica, incorporando dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones

sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituena.

contaminantes.

b) Etxetik dakarren homologazioaren arabera, gasa erretzen duen ibilgailua izatea, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituena.

b) Que se trate de vehículos que, según su homologación de fábrica utilice el gas como combustible e incorporen dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

Hobari hau eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, ibilgailua matrikulatu eta hurrengo hiru ekitaldietan balioko du.

Esta bonificación tiene carácter rogado y, una vez reconocida, surtirá efectos durante los dos siguientes ejercicios.

4.-a) %40eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori izaera orokorreko familia ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

4.-a) Una bonificación del 40 %, a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de Carácter General de acuerdo con la legislación vigente.

b) %60eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori izaera bereziko familia ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

a) Una bonificación del 60 %, a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de Carácter General de acuerdo con la legislación vigente.

Gure proposamena:

Nuestra propuesta:

10. art.- Hobariak

Art. 10º. Bonificaciones.

3.- Zerga kuotaren %80eko hobaria izango dute motor elektrikoa duten ibilgailuak.

3.- Gozarán de una bonificación del 80 por 100 de la cuota tributaria los vehículos que dispongan de motor eléctrico.

Hobari hau eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, ibilgailua matrikulatu eta hurrengo hiru ekitaldietan balioko du.

Esta bonificación tiene carácter rogado y, una vez reconocida, surtirá efectos durante los dos siguientes ejercicios.

4.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango

4.- Gozarán de una bonificación del 75 por 100

dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

Aurrekoarekin batera, eta ikusita bideratzen ari den sistema erabat birtuala dela, alegia, ez dagoela harreman zuzenik herritarrekin, komeni da Udal Gobernua auzo eta herrietako ordezkariekin biltzea, beren interes eta kezkak zuzenean entzuteko, dauden asmoak eta proposamenak konpartitu eta zuzenean eztabaidatzeko. Horregatik, auzoetako iritzi kolektiboak jasotze aldera, auzokako bilerak egitea aurreko guztiarekin bateragarria izanik, prozesuan aurreikusi behar den beste fase bat izan beharko litzateke aurrekontu parte hartzaileen praxian sakontzeko. Bilerok auzoan bertan eginez gero, aukera emango dute auzo elkarteekin, auzoetako kolektiboekin zein norbanakoekin elkarrizketak bideratzeko.

Por todo lo anteriormente expuesto, y visto que el sistema que se está llevando adelante es totalmente virtual, es decir, que no existe relación directa con la ciudadanía, resulta conveniente que el Gobierno Municipal se reúna con las y los representantes de los barrios y pueblos, para escuchar directamente sus intereses y preocupaciones, compartir los proyectos y propuestas y debatirlos directamente con ellos y ellas. Por ello, para poder recoger las opiniones colectivas de los barrios, y puesto que realizar reuniones por barrios es compatible con todo lo anterior, esto debería considerarse como otra fase del proceso, y así profundizar en la praxis de los presupuestos participativos. Si estas reuniones se realizaran en el propio barrio, habría ocasión de dialogar con las asociaciones de vecinos y vecinas, los colectivos del barrio y también con sus habitantes a título individual.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio lehenbailehen aholku kontseilu sektorialak deitzeko, beren iritziak eta proposamenak jasotzeko eta horren berri publiko egiteko, herritarrek aurrekontuei buruz egingo den kontsultan bozka ematerakoan

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que convoque de forma inmediata a los consejos asesores sectoriales, para poder conocer sus opiniones y propuestas, y hacerlas públicas, de modo que la ciudadanía tenga la oportunidad de

sektoreetan inplikatuta daudenen iritzi kolektiboa kontuan hartzeko aukera izan dezaten .

tomar en cuenta el criterio colectivo de quienes están implicados en los distintos sectores a la hora de dar su voto en la consulta sobre presupuestos que se lleve a cabo.

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio auzoetako iritzi kolektiboak jasotze aldera auzokako bilerak egiteko bertan auzo elkarteekin, auzoetako kolektiboekin zein norbanakoekin elkarrizketak bideratzeko.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, con el objetivo de recoger las opiniones colectivas de los barrios, lleve a cabo reuniones en cada uno de ellos, para poder dialogar con las asociaciones de vecinos, los colectivos y las personas a título individual de cada barrio.

Donostian, 2018ko irailaren 21ean

San Sebastián, 21 de septiembre de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.ª Miren Albistur Garmendia y D. Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (3) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 12 – (7) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (3) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 12 – (7) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.33. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak**

**II.2.33. Moción de control que presenta el**

**aurkeztua, hiriarteko garraio zerbitzua dela eta.**

“Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko uztailaren 9an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

Uztailaren 24an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak Tolosa, N1 eta Buruntzaldeko autobus zerbitzu emakidaren aurreproiektuari eginiko zuzenketen erantzuna. Tartean Donostiako Udalak eginiko zuzenketei emandako erantzuna. Irakur dezakegunez, Donostiako Udalak aurkeztutako alegazioak ez dira aintzat hartu; horien artean, Aldundiak ukatu egiten du koordinazio planik egin behar duenik, momentuz behintzat. Bestalde, aurreproiektuko 1.3.3 puntuari eginiko alegazioari Aldundiak hau erantzun dio: “Kontzesio esparrutik igarotzen diren zerbitzuek ez dute trafiko debekurik izango euren ibilbidean eta hirugarrenek, kontzesio honen bitartez, esleipendunari emandako kontzesio eskubideak errespetatuko dituzte”. Eta jarraian hauxe dio Aldundiak: “Donostiako aspaldiko aldarrikapen bati erantzunez hau gehitzen da: hala ere, Donostian trafiko debekuak izango ditu hiri barruan egiten diren ibilbideetarako”.

Uste dugu puntu hau aurrera ateraz gero,

**Grupo EH BILDU sobre el servicio de transporte interurbano.**

“Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público celebrada el 9 de julio de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El 24 de julio se publicaron, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG), las respuestas a las enmiendas presentadas al anteproyecto para la concesión del servicio de autobús de Tolosa, N1 y Buruntzaldea. Entre ellas, la respuesta a las enmiendas que presentó el Ayuntamiento de San Sebastián. Según se puede leer en dicha respuesta, las alegaciones presentadas por el Ayuntamiento de San Sebastián han sido desestimadas. Entre otras cuestiones, la Diputación niega la obligación de realizar un plan de coordinación, por lo menos de momento. Por otra parte, la Diputación señala, con respecto a la alegación presentada al punto 1.3.3 del anteproyecto, que «Los servicios que transcurran por el ámbito concesional no tendrán prohibiciones de tráfico en su recorrido y se respetarán por terceros los derechos concesionales otorgados al adjudicatario a través de la presente concesión». Seguidamente, se añade, dando respuesta a una reivindicación constante del Ayuntamiento de San Sebastián, que «No obstante, tendrá prohibición de tráfico en el municipio de San Sebastián para recorridos íntegramente urbanos».

Creemos que, si esta medida prospera,

Donostian autobusa erabiltzen duten pertsonen kaltetan izango dela, gaur egungo zerbitzu bat ukatuko zaielako, Eta bereziki larria iruditzen zaigu zerbitzuaren eguneko lehen eta azken orduetako zerbitzuak erabiltzea ukatzea; batzuetan Dbusek baino ordutegi zabalagoa baitute, Buruntzaldeko zerbitzua ematen duten autobusen kasuan adibidez.

Honi beste arazo bat gehitu behar zaio. Orain arte, behintzat, emakidan ematen ziren zerbitzuek Dbusi eragiten zioten, eta bidaiari kopuru "galera" orekatzeko, konpentsazio ekonomiko bat ematen zuen Foru Aldundiak. Hau ere desagertuko litzateke, Aldundiak emandako erantzunaren arabera. Ondorioa garbia da, beraz: diru gutxiago eta zerbitzu okerragoa Donostiarentzat.

Honi buruz batzordean galdetuta, zinegotzi ordezkariak esan zigun bere kezka handiena, neurri hau aurrera ateraz gero, zerbitzua okertzea dela. Ez hainbeste Udalak konpentsazioaren diru hori ez jasotzea; bere hitzetan, Aldundiak emandako zerbitzuak DBusek bere gain har ditzakeelako. Edozein kasutan Aldundiaren emakida aurreproiektuarekin ez daudela ados eta Donostiako Udalaren interesen defentsan jardungo dutela adierazi zuen batzordean, nahiz eta ez zuen zehaztu zein modutan.

redundará en perjuicio de la ciudadanía donostiarra, ya que se suprimirá un servicio que ya se está utilizando. Consideramos especialmente grave que se niegue la posibilidad de utilizar los servicios de primera y última hora del día, ya que hay días en los que los autobuses de la concesión de Buruntzaldea tienen un horario más amplio.

A ello hay que añadir otro problema. Los servicios que se han ofrecido, por lo menos hasta ahora, a través de la concesión de Buruntzaldea han afectado a Dbus, y, para compensar la "pérdida" de personas viajeras que dicha concesión ha causado, la Diputación Foral ha venido concediendo una compensación económica a dicha compañía. Esta compensación también desaparecerá, según la respuesta proporcionada por la Diputación. Por tanto, la consecuencia de todo ello es clara: menos ingresos y un peor servicio para San Sebastián.

En respuesta a las preguntas que formulamos en la Comisión sobre esta cuestión, la concejala delegada señaló que su mayor preocupación es que la puesta en marcha de la citada medida traiga como consecuencia un empeoramiento del servicio, y no tanto que el Ayuntamiento deje de cobrar la cantidad correspondiente a la compensación, ya que, según sus palabras, Dbus podría asumir los servicios que ofrece la Diputación. En cualquier caso, la delegada señaló en la Comisión que no están de acuerdo con el anteproyecto de concesión de la Diputación y que actuarán en defensa de los intereses del Ayuntamiento de San Sebastián, aunque no concretó la manera en que prevén defender dichos intereses.

Udal gobernuak erabakiko du egoera honi aurre egiteko zein den biderik onena, nahiz eta harrigarria iruditzen zaigun bai Foru Aldundian bai Donostiako Udalean alderdi berberek osatutako gobernu akordio bat egonik, adostasunik lortu ez izana gai honen inguruan, herritarren mesedetan noski.

El Gobierno Municipal determinará cuál es la vía más apropiada para hacer frente a esta situación, aunque nos parece sorprendente que, teniendo en cuenta que existe un acuerdo de gobierno tanto en la Diputación como en el Ayuntamiento de San Sebastián, donde gobiernan los mismos partidos, no se haya alcanzado un acuerdo en relación con esta cuestión, en beneficio de la ciudadanía.

Edozein kasutan Aldundiak aurkeztutako aurreproiektua Donostian autobusa erabiltzen duten pertsonentzat guztiz kaltegarria dela uste dugu. Zerbitzu batzuk ukatu egiten dituelako eta Donostiako Udalari diru sarrera bat kentzen diolako.

En cualquier caso, consideramos que el anteproyecto presentado por la Diputación perjudica notablemente a las personas que hacen uso del autobús en San Sebastián, puesto que se suprimen algunos servicios y se eliminan unos ingresos que el Ayuntamiento de San Sebastián ha venido recibiendo hasta ahora.

Gainera, herritarrentzat ulergaitza da autobus zerbitzuetan, haiek kudeatzen dituzten administrazioaren arabera, toki batean jaitsi ahal izatea edo ez. Administrazioek herritarren alde egin behar dute lan eta zerbitzu publikoen erabilera erraztu eta ez eragotzi.

Además, resulta incomprensible para la ciudadanía que, según la administración que gestione el servicio de autobús, se permita o no bajar en una determinada parada. Las administraciones deben trabajar a favor de la ciudadanía, y deben facilitar, y no obstaculizar, el uso de los servicios públicos.

Honegatik guztiagatik ondorengo kontrol mozioa aurkezten du behean sinatzen duen zinegotziak:

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako autobus erabiltzaileak kaltetuak izango ez diren akordio bat lor dezan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, hiriarteko emakidaren inguruan.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que alcance un acuerdo con la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación con la concesión del servicio de autobús interurbano, para que las personas usuarias del servicio de autobús de San Sebastián no resulten perjudicadas.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al

Gobernuari emakidaren inguruan adostasunik lortu ezean, Donostia kaltetua atera ez dadin eman beharreko pausoak eman ditzala Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean.

Gobierno Municipal a que, en caso de que no se alcance ningún acuerdo en torno a dicha concesión, dé los pasos necesarios ante la Diputación Foral de Gipuzkoa para que San Sebastián no resulte perjudicada.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, emakidaren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin akordiorik ez balego eta beste bide batzuek huts egingo balute (errekerimenduak eta abar), gaur egungo zerbitzuak (Dbus eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak) kontuan izanik, etorkizunean ere zerbitzu eta ordutegi horiek berma ditzala.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en caso de que no se alcance un acuerdo con la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación con la citada concesión y no prosperen otras vías (requerimientos, etc.), se garanticen los servicios y los horarios que se ofrecen actualmente (tanto los de Dbus como los de la Diputación Foral).

Donostian, 2018ko irailaren 21ean

San Sebastián, a 21 de septiembre de 2018

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ayem Oskoz Urrutikoetxea,
concejal del grupo municipal EH BILDU".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.34. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Uliako itsaslabarrak direla eta.**

**II.2.34. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a los acantilados de Ulia.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala

udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzaren 14ko Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Uliako itsaslabarrak Europar Batasunak babestutako eremu naturalak dira (Natura 2000ko parte). Kontserbazio Bereziko Eremu honen berri egiteko lan komunikatiboa prestatu eta dagokion kartel egokitua bertan kokatu zen 2015eko ekainean. Hortxe egon da hiru urtez udaberrian desagertu arte. Bertan ematen zen informazioa garrantzizkoa da herritarrek gunearen ezaugarriak ezagututa (landare eta animalia motak, zonaldearen ezaugarri berezituak, eta abar) beren balioaz ohartzeko; ezagutzak zaintza eta errespetua dakartzalakoan.

Haatik, desagerpenak Udal Gobernuak bertan jartzeko pasarelaren egitasmoa sustatzen hasi den unearekin bat egin duenez, biek zerikusia ote zezaketen zurrumurruak zabaldu ziren. Gainera, Udal Gobernuak “NU.02.ULIA" Naturgunearen Babesa eta Kontserbaziorako Plan Berezia gelditu zuen Donostiako parteari dagokionez, pasaitarren erabakien zain.

Gaiaz galdetuta zinegotzi ordezkariak esan zuen berehala jartzeko asmoa zegoela eta kartela desagertu izanak ez zuela beste ezerekin zerikusirik, nork kendu zuen ere ez

del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacios Públicos el 14 de mayo 2018.

JUSTIFICACIÓN

Los acantilados de Ulía constituyen un espacio natural protegido por la Unión Europea (forman parte de la Red Natura 2000). Para dar a conocer esta Zona de Especial Conservación, se elaboró un trabajo comunicativo y se colocó en aquel lugar un cartel apropiado, en junio de 2015. Allí ha permanecido durante tres años, hasta que, esta primavera, desapareció. La información que se daba en el cartel era importante, puesto que servía para que la ciudadanía, al conocer las características de la zona, fuera consciente de su valor (clases de plantas y animales, características específicas de la zona, etc.), puesto que el conocimiento lleva aparejados el cuidado y el respeto.

Como la desaparición del cartel ha coincidido con el momento en que el Gobierno Municipal ha empezado a promover el proyecto para hacer una pasarela en ese lugar, algunos rumores apuntaban a que los dos hechos estaban relacionados. Además, el Gobierno Municipal paralizó el Plan Especial para la Protección y Conservación del Espacio Natural “NU.02.ULIA" en la parte correspondiente a San Sebastián, a la espera de la decisión de las y los pasaitarras.

Preguntado por esta cuestión, el concejal delegado respondió que tenían la intención de volver a colocar el cartel inmediatamente y que su desaparición no tenía nada que ver con

zekitela. Jarriko zuten noizbait eta berriz lurrean botata zegoen udarako, eta Udal Gobernuak bere lekuan modu txukunean jartzeko ardura hartu ez zuenez, herritarrek hartu eta zeuzkaten medioak erabilita bertan jarri zuten, gutxienez, bertara gerturatzen direnek ikusi ahal izateko moduan. Hortxe geratu da erorita (edo kenduta?) eta hala ere jendeak irakurtzen du, jakin-mina pertsonen barru-barruko gose aseezina delako.

ninguna otra cosa, además de que no sabían quién lo había quitado. Lo pondrían, seguramente, en algún momento, pero, para el verano, otra vez estaba en el suelo y, como el Gobierno Municipal no se preocupó de colocarlo en su sitio del modo adecuado, algunas personas lo cogieron y, con los medios de los que disponían, lo colocaron allí, para que, por lo menos, los que se acercara al lugar pudieran verlo. Ahí ha quedado tirado (¿o arrancado?). Aún así, la gente lo lee, porque el deseo de saber es un deseo insaciable de las personas, que viene de muy adentro.

Uliako kartelarekin egindako kudeaketa kaxkarra ezin da ulertu bigarren intentzioren bat dagoelako ez bada. Uliako itsaslabarrak Europar Batasunak babestutako eremu naturalak direla azaltzeko, zer landare eta animalia motak dauden, zonaldearen ezaugarri berezituak zeintzuk diren, babesaren zergatia, finean, azaltzea guztiz garrantzizkoa da herritarrek erabakiaren mamia ezagutu dezaten, ezagutzatik errespetua baitator. Ingurumena zaintzeko oinarrizko politikaren parte

La mala gestión demostrada en lo relativo al cartel de Ulía sólo puede entenderse si es que hay una segunda intención. Hacer saber que los acantilados de Ulía son un espacio natural protegido por la Unión Europea, qué tipo de plantas y animales habitan allí, cuáles son las características específicas de la zona, por qué es una zona protegida… explicar todo esto es algo de gran importancia para que la ciudadanía sepa en qué se basa la decisión de declararla zona natural protegida, puesto que el conocimiento lleva consigo el respeto. Algo que forma parte de la política básica de cuidado del medio ambiente.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por tanto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio lehenbailehen Uliako itsaslabarrei dagokien informazio guztia, Europar Batasunak babestutako eremu naturalak direla eta, azaltzen duen kartela jartzeko, halako espazioari dagokion duintasunez eta iraunkortasuna ziurtatzeko behar diren medio egokiak erabiliz.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que ponga, sin más dilación, un cartel con toda la información relativa a los acantilados de Ulía, en cuanto espacio natural protegido por la Unión Europea, empleando para ello unos medios que se correspondan con la grandeza del lugar y que sirvan para garantizar su permanencia.

Donostian, 2018ko irailaren 21ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 21 de septiembre de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.35. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Merkear futbol zelaia dela eta.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Merkear kirol gunea dela-eta, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko apirilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean, gai honetaz informazio bila, galdera aurkeztu genion zinegotzi-ordezkariari. Erantzunean Topoaren igarobidearen obrak direla eta, handik ateratako lurrak eremu honetara ez zirela ekarriko ziurtatu zuen.

**II.2.35. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa al campo de fútbol Merkear.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, relativa a la zona deportiva de Merkear, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación realizada el 16 de abril de 2018 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En febrero, presentamos una pregunta a la Concejalía delegada, con el propósito de obtener información sobre esta cuestión. En su respuesta, aseguró que las tierras que se extraigan en el recorrido del Topo, debido a las

Bigarren galdera erantzun gabe geratu zen:

2- Futbol zelaia berriaren kronograma bat helaraz al dezakezue? Hau da, zelai berria eraikitzeko behar diren epeak zehaztuz.

Eta hirugarren galderaren erantzunean zinegotzi-ordezkariak pausorik ez zela eman adierazi zuen. Hona hemen galdera:

3- Gaur egun Herrerako futbol zelaia dagoen udal lursailarekin, zer proposatuko duzue? Herritarrak kontuan izango al dituzue?

Apirilean aurkeztutako interpelazioan kronograma eta kirol programa eskatu genituen eta horren arabera, zinegotzi-ordezkariak proiektua ekainerako eginda egongo zela adierazi zuen. Irailean gaude eta horrelakorik ez dugu jaso.

Bestalde Altzako herritarrekin proiektua partekatzea eskatu genuen, Altzan hainbat kezka (adibidez, mugikortasuna aldetik) baitaude.

Hauek honela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Merkear kirol gunearen proiektua osorik (kirol ezaugarriak, ingurumena... mugikortasun plana barne) auzotarrei auzoan bertan aurkez diezaiela.

obras, no serán desplazadas a este terreno. La segunda pregunta quedó sin respuesta.

En ella le solicitábamos que nos diera a conocer el cronograma de las fases a seguir en la construcción del nuevo campo de fútbol. Es decir, que concretara los plazos necesarios para construir el nuevo campo.

En la respuesta que dio a nuestra tercera pregunta, la Concejalía delegada dijo que no se había dado ningún paso.

La pregunta era qué proponía hacer el Gobierno Municipal con la parcela municipal en la que está situado actualmente el campo de fútbol de Herrera, y si pensaban contar con la ciudadanía en esa cuestión.

En la interpelación presentada en abril, solicitamos un cronograma y un programa de deportes y la Concejalía manifestó que el proyecto estaría finalizado para junio. Nos encontramos en septiembre, y aún no se nos ha hecho llegar el proyecto prometido.

Por otro lado, solicitamos también que el proyecto se compartiera con la ciudadanía de Alza, ya que son varias las cuestiones que preocupan al vecindario de ese barrio (por ejemplo, el tema de la movilidad).

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que presente a los vecinos y vecinas de la zona, en su propio barrio, el proyecto completo de la zona deportiva de Merkear (características

deportivas, medio ambiente…), plan de movilidad incluido.

Donostia, 2018ko irailaren 21ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 21 de septiembre de 2018

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.36. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, migratzaileak eta kolektibo horrentzat jarritako baliabideak direla eta.**

**II.2.36. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre las personas migrantes y los recursos destinados a este colectivo.**

“EH Bildu udal taldeko Olaia Duarte Lopezek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Donostiara iristen diren eta hemen geratu nahi duten migratzaileen egoera dela eta, Udalbatzan azter dadin. Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak irailaren 7an azterturiko interpelazioaren ondorio da mozioa.

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para su debate en el Pleno, sobre la situación que viven las personas migrantes que llegan y quieren quedarse en Donostia. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas, celebrada el pasado 17 de septiembre.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Orain arte, erantzukizunik handiena Euskadiko Gurutze Gorriaren esku utziz erantzun diote erakundeek migratzaile etorri berriei harrera egiteko beharrari, Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udal batzuek (zehazki, Bilbo, Donostia, Irun eta Gasteizkoek) eta erakunde horren artean sinaturiko lankidetza akordioarekin bat.

Horri dagokionez, gogoratu behar dugu Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak honako hau ezartzen duela 60.2 artikuluan: “Eskarien lehenengo harrerako prestazioak, bai eta esku-hartzeko oinarrizko prozedura gisa kasuko koordinazioa duten prestazioei zuzenean lotutakoak ere, bereziki balioespena, diagnostikoa eta orientazioa, beti zuzeneko kudeaketa publikokoak izango dira (…)”..Beraz, oinarrizko gizarte zerbitzuek egin behar zuten hasierako balioespena, bai eta esku hartzeko zer prozedura erabiliko den zehaztu ere, behar izanez gero, bigarren mailako arreta emateko zerbitzu espezializatuekin batera. Halaxe dago jasota Gizarte Zerbitzuen Legearen 19.4 artikuluko a letran eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren 18. artikuluan. Aldiz, gaur egun ezarritako esparrua ez bakarrik da Legearen kontrakoa, baizik eta, errealitatean, baztertu egiten ditu igarobidean dauden migratzaileak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik.

Beste kontu bat da baliabideak nola kudeatuko diren eta zerbitzua nola emango den; hori bai adostu daiteke hirugarren sektorearekin. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adierazi du ad hoc baliabideak irekitzeko asmoa duela, aditzera emanez Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ez duela jasotzen igarobidean

Hasta la fecha, la respuesta institucional a la necesidad de acogida de las personas migrantes recién llegadas ha consistido en descargar el grueso de la responsabilidad de la atención en Cruz Roja Euskadi, en virtud de un acuerdo de colaboración suscrito entre el Gobierno Vasco, diputaciones y algunos ayuntamientos (en concreto, Bilbo, Donostia, Irun y Gasteiz) y la citada entidad.

A este respecto, debemos recordar que la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 60.2 establece que la “primera acogida de las demandas, así como las prestaciones directamente asociadas a la coordinación de caso como procedimiento básico de intervención, en particular la valoración, el diagnóstico y la orientación (...) serán siempre de gestión pública directa”. Por lo tanto, la valoración inicial y la determinación del procedimiento de intervención deberían estar siendo realizados por los servicios sociales de base, en colaboración, si fuera necesario, con los servicios especializados de atención secundaria. Así está previsto en el artículo 19.4, letra a, de la Ley de Servicios Sociales y en el artículo 18 del Decreto de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. En cambio, el marco establecido actualmente no solo es contrario a la Ley, sino que en la práctica excluye a las personas migrantes en tránsito del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Otra cuestión diferente es la gestión de recursos y la prestación de servicios que sí puede ser acordada con el tercer sector. A este respecto, el Gobierno Vasco ha manifestado la intención de proceder a la apertura de recursos ad-hoc, dando a entender que el Sistema Vasco de Servicios Sociales no

dauden migratzaileentzako arreta, eta hori gezur biribila da.

Zorroari buruzko Dekretuak kontuan hartzen ditu udal eskumeneko “Gaueko harrera zerbitzuak (1.8.)”: “laguntza maila txikiko unitateak dira, bazterkeria egoeran dauden pertsonei laguntzea helburu dutenak; bereziki iragaitzazko bidariei eta etxerik ez duten pertsonei. Zehazki, gaua igarotzeko bitarteko bat eskaintzen diete eta, epe motzera, gaua igarotzeko, jateko eta higiene pertsonalerako oinarrizko prestazioak ere bai”. Horiei “Eguneko arretarako zerbitzuak (1.7.)” gehitu beharko litzaizkieke; horien helburua da “zerbitzua premiaz lortu beharra dakarren bazterkeria-egoeran dauden pertsonei eguna igarotzeko eta oinarrizko elikadura- eta higiene-premiak betetzeko gailu bat eskaintzea”. Bi baliabideak hizpide dugunaren antzeko “epe motzeko egonaldietarako” daude pentsatuak, “astebeteko gehieneko epea ezartzen baita, baina epe hori luzatu ahal izango da, behar izanez gero”. Azken hori azpimarratu beharra dago, eztabaida izan baita egonaldiek gehienez 3 edo 5 egunekoak izan behar ote duten; legegileen asmoa, ordea, ez zen arreta denbora mugatzea, baizik eta ezartzea zer jotzen den "epe motz" gisa eta noiztik aurrera hartu behar duten txanda bigarren mailako arrreta zerbitzuek.

Hirian geratzea erabakitzen duten pertsonen kasuan, zinegotzi ordezkariak batzordean esan zuen % 5a baizik ez dela eta ez dutela asmorik kolektibo horrentzako baliabide espezifikorik irekitzeko, jakinda gaur egun 16 pertsona bizi direla Txantxarrekako gaztetxean (duela hilabete baino gehiagotik), kaleko egoeran gelditu eta Zorroagako harrera baliabiderako (Gurutze Gorriak kudeatua) ezarria dagoen muga (5 egun) gainditu dutela eta.

contempla la atención de personas migrantes en tránsito, siendo esto rotundamente falso.

El Decreto de Cartera contempla “Servicios de acogida nocturna (1.8.)” de competencia municipal; “dispositivos, de baja intensidad de apoyo, que ofrecen a personas en situación de exclusión, en particular a personas transeúntes y a personas sin hogar, un recurso en el que pasar la noche y, con carácter inmediato, prestaciones básicas de pernocta, manutención, e higiene personal”. A ellos habría que añadir los “Servicios de atención diurna (1.7.)” que tendría como objetivo “ofrecer a las personas en situación de exclusión un dispositivo al que acudir durante el día y cubrir necesidades básicas de alimentación e higiene, entendiéndose estas situaciones como de acceso urgente”. Ambos recursos están pensados para “estancias de corta duración”, como las que nos ocupan, “estableciéndose un plazo máximo de una semana, pudiendo prorrogarse, si fuera necesario”. Es necesario subrayar esto último ante el debate mantenido sobre si las estancias deben ser de un máximo 3 o 5 días, ya que la intención de los y las legisladoras no era la de limitar la atención en el tiempo, sino la de establecer qué se entiende por “corta duración” y a partir de qué momento toman el relevo los servicios de atención secundaria.

En el caso de las personas que deciden quedarse en la ciudad, la concejal delegada dijo en comisión que solo se trata del 5% y que no había intención de abrir recursos específicos para el colectivo, a sabiendas de que a día de hoy 16 personas viven en el gaztetxe de Txantxarreka (desde hace más de un mes) por encontrarse en situación de calle y haber superado el computo de días (5 días) establecido para el recurso de acogida de

Zorroaga (gestionado por Cruz Roja).

Garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea, hirian eta, zehazki, Antiguan sortu den boluntario sarearengatik ez balitz, kaleko egoeran egongo liratekeela beren jatorriko herrialdetik atera behar izan duten pertsona horiek. Oraingo gizarte babeseko sistemak ezartzen du hemen geratu nahi duten pertsonek hiru egun eman ditzaketela, gehienez, hiriko eta inguruetako aterpeetan. Hiru egun horiek igarotakoan, kaleko egoeran geratzen dira. Hirian erroldatzea lortzen badute, erroldatu eta sei hilabetera lortzen duten BARE baloraziorako eskubidea (bi hilabeteko itxarote zerrenda dago); balorazioaren emaitzaren ostean, Sorabilla, Uba, Aterpea, Hotzaldi eta halako baliabideetan sartzeko aukera izan dezakete, baina denek ere lau bat hilabeteko itxarote zerrenda dute. Hau da, urtebete ere luza daiteke kaleko egoera, baliabide batean sartzea lortu arte, horrek pertsonaren ongizate sanitario eta emozionalerako dakarren guztiarekin.

Nos parece importante señalar, que si no fuera por la red de voluntariado creada en la ciudad y, concretamente, en el Antiguo, estas personas que se han visto obligadas a salir de sus países de origen estarían en situación de calle. El sistema de protección social actual sólo contempla estancias de 3 días en los albergues de la ciudad y alrededores para las personas que desean quedarse. Al terminar esos 3 días, estas personas quedan en situación de calle. En el caso de que consigan empadronarse en la ciudad, tras 6 meses de empadronamiento obtienen el derecho a la valoración BARE (valoración con una lista de espera de 2 meses) y tras el resultado de la valoración pueden tener opción a recursos como Soravilla, UBA, Aterpea, Hotzaldi, etc. todos ellos con una lista de espera de unos 4 meses. Es decir, que la situación de calle se puede prolongar más de un año hasta acceder a un recurso, con todo lo que eso conlleva para el bienestar sanitario y emocional de la persona.

Azken batean, uste dugu hirian geratu nahi duten migratzaileen egoerak agerian jarri dituela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren lotsak eta gabeziak. Legean eta hura garatzen duten tresnetan aurreikusitako zerbitzuak eta prestazioak zabaldu gabe daude eta ez dira nahikoak oraindik, batez ere gizarteratzearen esparrukoak direnak.

En definitiva, consideramos que la situación de las personas migrantes que desean quedarse en la ciudad está dejando a la vista las vergüenzas y carencias del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Los servicios y prestaciones previstas en la Ley y sus instrumentos de desarrollo siguen sin desplegarse y sin ser suficientes, especialmente en el ámbito de la inclusión.

Hori guztia ikusita, agiri hau sinatzen duen zinegotziak KONTROL MOZIO hau egiten du:

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko 12/2008

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a garantizar que el apoyo a las personas migrantes recién

Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan ezarritako zerbitzuen bidez lagunduko zaiela Donostiara etorri berri diren migratzaileei: informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzuak; gaueko harrera zerbitzuak; ostatu zerbitzuak (harrera etxebizitzak eta halakoak); eta eguneko arretarako zerbitzuak.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako profesionalek egingo dutela oinarrizko esku hartze prozedura. Hasierako balorazioa egitea eta esku hartzeko prozedura zehaztea oinarrizko gizarte zerbitzuen prestazioak izango dira, edo, hala badagokio, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuarenak, eta, beharrezkoa izanez gero, bigarren mailako zerbitzu espezializatuekin elkarlanean emango dira, Gizarte Zerbitzuen Legearen 19.4 artikuluko a letrak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren 18. artikuluak jartzen dutenarekin bat.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala gaueko harrera zerbitzuetako egonaldi laburrak astebetekoak izatea, eta, beharrezkoa izanez gero, epe hori luzatu ahal izatea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak jartzen duenarekin bat.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari behar diren neurriak jar ditzala abian gure hirian geratzea erabakitzen duten edo nazioarteko babesa eskatu nahi duten migratzaileei erantzuna emateko.

llegadas a Donostia se realice a través de los servicios previstos en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y el Decreto de Cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales: Servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación, Servicios de acogida nocturna, Servicios de alojamiento como Pisos de acogida y Servicios de atención diurna.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a garantizar que el procedimiento básico de intervención sea realizado por profesionales del Sistema Vasco de Servicios Sociales siendo la valoración inicial y la determinación del procedimiento de intervención prestaciones de los servicios sociales de base o en su caso, el SMUS, en colaboración, si fuera necesario, con los servicios especializados de atención secundaria, tal y como prevé el artículo 19.4, letra a, de la Ley de Servicios Sociales y en el artículo 18 del Decreto de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a garantizar que el plazo de las estancias de corta duración en los servicios de acogida nocturna sea de una semana, pudiendo prorrogarse si fuera necesario, tal y como recoge el Decreto de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que ponga en marcha los servicios necesarios para dar respuesta a las personas migrantes que deciden permanecer en nuestra ciudad y/o que desean solicitar la protección internacional.

Donostia, 2018ko irailaren 21a.

Sin.: Olaia Duarte López,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, a 21 de septiembre de 2018

Sin.: Olaia Duarte López
Concejala del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López y D.ª Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 4 – (3) EH BILDU, (1) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 12 – (7) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 4 – (3) EH BILDU, (1) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 12 – (7) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ZAZPIAK ETA BERROGEITA HAMABITAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECINUEVE HORAS Y CINCUENTA Y DOS MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**